

MANU IZAGUIRRE

“Itsasoko mundua legetik at dago. Edonor ibil daiteke urpean, eta “saria” eraman”

Manu Izaguirre Lacoste (Donostia, 1949). Bartzelonan aparejadore ikasketak burutu zituen eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare teknikaria da. Arkeologia eta submarinismoa maitatzen ditu eta bi pasio horiek batzen jakin izan du. Joeko hamarkadatik itsas arkeologiarri estu heldu dio eta esan genezake gure herrian aitzindaria dela gai honetan.

Itsas arkeologoa zarela esan dut. Hala al da?

Ni, zehazki, itsasoari lotuago nago arkeologiarri baino. Itsasoko arkeologian asko mugitu maiz. Biltzar guztietan sortzen da itsas arkeologia, urpeko edo itsaspeko ote den eztabaida. Onartu behar da ikerketa-ingurua itsaso delar, eta komunikatzeko, giza asentamendurako eta gizarte- eta merkataritza-harremanetarako bidea, berriz, ura. Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik nabil horretan; lurreko arkeologian, berriz, dezente lehenagotik. Itsasoak babestu egiten du batik bat, eta, hain zuzen, horrek erakarri ninduen.

Itsasoko mundua legetik at dago. Edonor ibil daiteke urpean, eta “saria” eraman. Protekzionistoi beti iruditu zaigu, neurri batean, delituzko jarduera dela, batik bat lapurretengatik.

Itsas arkeologiaren bilakaera lurrekoaren antzekoa al da?

Ez, ez horixe. Urpekoak bilakaera ezberdina izan du, eta erabili izan den metodologia ere bestelako da. Urpean, gure inguru naturala ez den aldetik, ezin da lurrean bezala lan egin, bestela jardun behar da. Asko zailagoa da dena. Urpean jardun dezakegun denbora mugatua da, eremu txikiagoa ikusten dugu, eta edozein

esfortzu akzio-erreakzio printzipioaren menpe dago. Ura grabitaterik gabeko ingurua da, eta horrek izugarri zaitzen du bertan jardutea. Ondorioz, badakigu urpeko arkeologia oinarritzkoagoa dela, lurreko baino askoz geldoagoa. Eta, beraz, garestiagoa.

Ezagutzen al da hemen itsas arkeologiarene esparruan egiten dena?

Ezin dugu esan ezezaguna denik ere. Egia da, hala ere, ezagutza sektore gutxiengodunetan dagoela. Itsasoko arkeologia “aurkikuntza handie” dagoela lotuta esan dezakegu. Gainera, kutsu abenturazalea du, Cousteau-ren antzera. Horregatik, lorpen zientifikoak ez dira hain ezagunak izaten.

Zer ibilbide izan duzu?

Gai horretan, lanari serioski heldu zion pertsona Jaime Rodríguez Salís da, arkeologia zale amorratua. Urpekarien arten egiten ari zenari kutsu zientifiko eman zion. Harrezkero beste batzuk agertu dira, esate baterako Zaragozako Unibertsitateko katedradun Manuel Martín Bueno, lan handia egin baitu gure kostetan. Eta gero hainbat lagun heldu ginen, espezialitateak gure kezkak eta jakin-nahiak garatzeko aukera ematen zuelakoan. Itsaspeko arkeologiako elkartea sortu genuen: INSUB. Elkartetik alderdi biologiko eta arkeologikoak ikertzen genituen eta desagertzeko arriskuan ikusten genuen guztia babesten genuen.

Dena dela, ez zitzaignun premiazkoa iruditzen urpean ikerketa handiak egitea, barrenak mugiarazita edo ondarearen suntsipena ekarriko zuen teknologiaz baliatuz. Zegoena ezagutu nahi genuen, kirol-jarduerarik handieneko guneak miatu, besteak beste, Hondarribia, Donostia,



Getaria, Mutriku... Eta pieza esanguratsuren bat aurkituz gero, berreskuratzen ahalegindu. Hori izan da gure lan egiteko modua, Gipuzkoako kostaldean. Bizkaikoan, berriz, jardunbide ezberdinak erabili ditugu, nahiz eta problematika bera izan.

Ezagutzen duzu ikertzea eta induskatzea gustatuko litzauzukeen ontzi-hondakinik?

Jakina. Guztioi gabiltza gerra zibileko bou edo arrasteko bikote bizkaitarren atzetik. Itsas kapitaintzako artxibategiei esker, badira induskatu nahiko genituzkeen zenbat itsasontzi, baina itsas zabalean daudenez, zaila da horiekin lan egitea. Adibidetzat Oriatik atera genuen Orio IV benakeroa dugu: baguen horren berri, ikusita genuelako, baina berriz aurkitzeko hilabetetik gora behar izan genuen. Itsasoa aldakorra da.

Nola ikusten duzu itsas arkeologiaren etorkizuna Euskal Herrian?

Arkeologoak bizi egin behar du. Ezagutzen dugun arkeologia tradizionalak ez du bizitzeko adina ematen. Zer egiten duzu espezialistik sortzeko? Modu bakarra legearen bidea da. Legeak babesguneak aitortu behar ditu, bertan egiten diren lanak ikerketa arkeologikoaren arauetara lotu daitezten. Legerik ezean ez dago aurrerabiderik. Zoritzarrez, itsasoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ez du babesgunerik aitortu gaur arte. Horregatik, gure ondarea galtzeko arriskua dugu.

Josemari Velez de Mendizabal Azkarraga

Elkarritzeta osoa: www.euskonews.com/59ozbk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

LUIS MARÍA MARTÍNEZ GARATE*

Historia y manipulación

Toda la historia está escrita desde el presente, tomando en cuenta el conjunto de conflictos e intereses contrapuestos que se manifiestan en la sociedad desde la que se escribe. La historia es ciencia, pero es una ciencia muy especial. La selección de los hechos sobre los que un historiador quiere investigar y descubrir sus orígenes, evolución, conflictividad, consenso y resultados no es inocente. Tampoco lo son los límites espaciales y temporales que obligatoriamente debe poner a su investigación. Cualquier hecho histórico ocurrido en cualquier lugar está relacionado tanto en la escala temporal con hechos que le precedieron y colaboraron o participaron en su ocurrencia como en la espacial con acontecimientos que sucedían en su entorno físico más o menos próximo. Es imposible investigar al mismo tiempo todo sobre un hecho y todo sobre sus antecedentes y todo sobre lo que sucedía en el resto del mundo al mismo tiempo. La selección de los hechos siempre se hace desde el debate político del presente. Como afirmó Edward Said (2000): "La escritura de la historia es el mejor camino para dar su definición a un país y la identidad de una sociedad es en gran parte función de la interpretación histórica, campo en el que se enfrentan las afirmaciones que se discuten y las contra-afirmaciones".

Normalmente la memoria histórica es la base sobre la que se sustenta la selección de hechos que se ofrecen para la investigación histórica. Ahora bien, cuando en un conflicto hay vencedores y vencidos la memoria juega un papel ambivalente. Según Walter Benjamin, la memoria de los vencidos es la única vía para el

resarcimiento de la derrota cuando ésta es considerada injusta. Si los vencidos olvidan la situación y hechos en los que fueron derrotados, el olvido constituye una segunda derrota que, según Benjamin, puede ser definitiva. La memoria es un factor emancipador de primer orden. Por eso los vencedores tratan de hacer que los vencidos olviden la memoria de sus derrotas, que la tengan desdibujada o directamente tergiversada y sustituida por la victoriosa. Para eso se apoyan en el conocido adagio de que "son los vencedores quienes escriben la historia". Para lograr una versión favorable a sus intereses, tienden a dejar de lado cualquier práctica de lo que es el método científico de la historia: los análisis de fuentes y archivos son sesgados, parciales o simplemente manipulados.

El documento recientemente descubierto por la historiadora Idoia Arrieta (2011) sobre la conquista de la Navarra marítima o País Vasco Occidental en 1200 en el que la propia denominación de "conquista" para Donostia aparecía ocultada, con dolo, por parte del burócrata español de turno a las órdenes del político correspondiente, constituye el último ejemplo conocido de esta manipulación.

Otro tanto sucede con la falta de contextualización de los hechos y de su constante interpretación finalista. En el caso de Navarra es clara la manipulación que supone hablar permanentemente de la vocación hispánica de Navarra desde etapas muy anteriores al surgimiento de la idea nacional española. Las historias de Navarra que nos ofrece el

nacionalismo español, sobre todo las realizadas desde sus intereses en la propia Comunidad Foral del presente, son ejemplos reiterados de este error. El ofrecer juicios de valor sobre acontecimientos pasados con criterios históricos o sociales del momento actual es otro de los fallos de método habituales en estas historias. Un ejemplo claro es tomar como referencia permanente para los límites de Navarra los de la actual demarcación administrativo-política que supone dicha Comunidad Foral. Así se pueden encontrar narraciones de la historia del reino de Navarra de la época de Sancho III el Mayor, a comienzos del siglo XI, cuando ni tan siquiera lo era de Navarra, sino de Pamplona, con unas mugas al norte que coinciden con las actuales entre los estados español y francés. Es ampliamente reconocido que las posesiones de este rey se extendían de forma amplia por el norte del Pirineo.

La inexistencia de una obra breve, sencilla y actualizada de la historia de los vascos, sobre todo desde una perspectiva política, me ha llevado a escribir una *Síntesis histórica* del conjunto de Vasconia considerada como sujeto histórico. Plantearla desde su propia centralidad y no como satélite que gira en torno a otros planetas; tampoco como retazos aislados de las historias de los estados que actualmente nos dominan. He planteado a Navarra como el Estado histórico de los vascos; su máxima construcción política como Estado independiente y soberano. He tomado por hilo conductor su cultura social propia, basada en su sistema Jurídico Pirenaico, también conocido como Derecho Pirenaico. El pueblo construyó el reino, el reino devino Estado y el reino-Estado nacionalizó la propia sociedad vasca. Sin su estado histórico, Navarra, difícilmente hablariamos en el siglo XXI de nación vasca.

*Autor de *Nafarroako historiare sintesia / Síntesis de la historia de Navarra* (2011)

Paperetik
sarera

www.euskomedia.org

Sukaldariak eta artistak, esploratzaile bat eta idazle bat

Beste eskola ikasturte bat hastera doa. Euskal esparruan, Mondragon Unibertsitateak eta gastronomiaren alorreko hainbat euskal profesionalek sustaturiko Donostiaiko Basque Culinary Center izenekoia irekitzea dugu berritasunik nabarmenena. Joxe Mari Aizega, Eusko Ikaskuntzako baxkidea da Basque Culinary Center-eko zuzendaria.

Duela urtebete, 543. alean, Euskonews-ek elkarrizketa bat egin zion Iñigo Lavado, 2008ko Gastronomia Euskadi Sariaren irabazleari. Belaunaldi berriko sukaldari gailenatko bat den horren ibilbideari eta lanbideaz duen ikuspegia gainbegiratu bat emateaz

gainera, Lavadok analizatu egin zuen Basque Culinary Center-ek zer ekar diezaioken, bereziki, profesioari eta, oro har, herrialdeari. Hilabeteko aukeran elkarrizketa hau berreskuratu dugu: www.euskomedia.org gunetik irits daiteke horretara.

"Ni ez naiz artista", dio Irungo sukaldaria. Haren kasuan eztabaidagai izan litekeen adierazpena dugu hori, baina ez da horrela gertatzen Asociacion de Artistas Vascos delakoaren sortzaileei dagokienez. Bilbon, 1911ko urriaren 29an sorturiko elkarre honen estatutuen 1. artikuluak bere zeregina finkatzen zuen: "Arte ederren garapena sustatzea,

erakusketak, lehiaketak eta hitzaldiak antolatzea, liburutegi bat sortzea eta artistei Bilbotik kanpo egiten dituzten erakusketetara obrak bidali ahal izateko behar dituzten baliabideak ematea". Auñamendi Entziklopedia dagokion sarreran bildu du 1918 urtean Asociacion de Artistas Vascos hori osatzen zuten artisten zerrenda; bertan garaiko arteetako jende gailena agertzen da.

Arte elkartea hura sortu baino bi hilabete lehenago, Manuel Iradier Bulfy hil zen Segovian. Esploratzailea, giza eta natura zientzien azterlaria, asmatzailea... Euskal historiako entzute handiko pertsona, asmakari eta aurkikuntza handien garaikoa. Haren

ehungarren urtearen kariaz, Gasteizko Caja Vital Kutxak, "Manuel Iradier: Mito baten ehun urteak" izenburuko erakusketa aurkezten du bere Fundazioa Gelan. Erakusketa hori gomendatzen dugu, gure Atejoka leihohan aukeratu dugun biografia motzarekin batera. Ondoko orrian, Perpetua Saragueta Nafarroako euskal idazlari buruzko liburu interesgarri batetan iruzkina aurkituko duzu irakurle. Garaiko araukiko emakume aitzinatu eta bide urratzaile izan zen emakume honen biografia ederra aurki dezakezu Euskomediako funtsetan, Jose Mari Satrustegik "Bidegileak" bildumararako idatzia eta hainbat argazkiz eta material grafikoz hornitua.



basque culinary center



Manuel Iradier Bulfy



Perpetua Saragueta

ANA TOLEDO

Aitor, euskaldunen identitatearen eratzailea

XIX. mendeak bigarren erdiari hasiera eman orduko egin zuten agerrera Antoine d'Abbadieren mezenasgopean garatu ziren Lore-Jokoak. Mendearren azken laurdenean, d'Abbadieren lorrazak jarraituz, beste antolatzailerik ere izan zuten festa hauek. Horien artean, Jose Manterolak bultzaturik, Donostiako Udalak bideratutakoak dira iraupenik handiena eskuratu zutenak. Baita, estreinakoz lehiaketa literarioan kontaketa-prosa saritu zutenak ere.

Ordurako ezaguna zen Aitor Aitalehenak Euskal Herrian. Agustin Xahoren sorkaria, Iparretik Hegorako muga igaro eta, iritsita zegoen gaztelaniaren barrutira: Francisco Navarro Villosladak *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) eleberriari irekitako tartea lekuko. Frantsesez bizitza hartu zuen Aitalehenak, gaztelaniaz ezagutzera eman ondotik, euskarara egingo du jauzi, Donostiako euskal festetan kontaketaren sailean saritutako Karmelo Etxegarairen "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera" legendari esker. Bertan adierazten denez, bada Aitor izeneko Aitalehenak sortutako giza talde bat, Euskal Herrian sustraiak bota dituena.

Aitorpenarengatik borroka da identitatea eta borroka honen harian



eraikitzen da bestetasuna, beste izatea. Identitatea, aurrenik, bestearengandik bereiztea, desberdintzea da: bestearekiko harremanean osatzen da. Euskaldunen identitateak, zeltarrekiko eta Aitorren Ahaideekiko harremanean eraiki eta gero, erromatarrekiko, godoekiko, mairuekiko, erdaldunekiko... harremanean iraungo du, Donostiako euskal festetan saritutako legenda-multzo batek erakutsi zuenez. Izan ere, kontatutako istorioa legendazko lehen aldian edo lehen aldi historiko urrunean kokatu zuen legenda-multzora jotzen bada, ondorioa agerikoa da: Aitor Aitalehenaren ondorengoeik haren nortasun berbera gordeaz eta, denboraren harian sortzen joan ziren giza taldeengandik bereiziz, jarraitu zuten. Erromatarra, godoa, mairua, erdalduna... Aitorren heriotzaren ondokoa da, baina euskalduna, Aitalehenaren balore-sistema berberari eutsiz, giza talde horiek ez bezalakoa da. Aitalehenak eraikitako identitatea berretsi baino ez dute egiten. Berretsiz, identitatea iraunkor bihurtzen dute.

Mendian sortu zuen Aitorrek Euskal Herria eta mendi horietatik behin ere ez irteteko desira azaldu. Aurrerantzean mendia izango du bizileku euskaldunak. Bere bizilekuaren ezagutzaile aparta, menditarrok ez direnek ezin izango dute menderatu. Hala aitortzen dute erromatarrek edo godoek.



Aitorrek Ararateko mendietan hasitako bidaiaiak Kaukasopea zuen helmuga. Haatik, egonaldi luze baten ostean, bideari heltzen dio berriro. Badu arrazoirik horretarako: auzoko dituen zeltarren aberastasun-gutizia. Aberastasun guztien gainetik bakean bizi izatea jomuga, berriz ere bidaiai bihurtzen da Auñamendira iritsi arte. Aitor zeltarrengandik bereizten zuen ezaugarririk bizirik iraungo du bere ondorengengan: esaterako, bizileku dituzten mendietan bakean bizi izaten jarraitza besterik ez diete eskatuko erdaldunei. Ordurako, mezu berbera helarazia zieten erromatarrei eta mairuei: hobe aske besteren mendean bizi izatea baino, nahiz eta aberats izatearen kaltetan izan eta, ondorioz, mundu zabalean inor izan ez. Aske izaten jarraitu nahiak eraman zituen menderatzen etorri ziren guztiei aurre egitera: erromatarrei, mairuei...

Sinesmena ere ezagarri bereizle dute: "tallu ustelak" gurtzen dituzten erromatarren edo Mahoma profetaren jarraitzaileen aurrean, Gurutzea dute gidari.

Laburbilduz, XIX. mendearen azken laurdenean argitaratutako legenda-multzo batean euskalduna identitate jakinaren jabe aurkezten da: menditarra, bake zalea, aberastasunik gabea, inbaditzalea ez dena, Jainko bakar batengan sinesten duena, prestua da. Oposizioek erakusten dutenez, kontakitetara dakartzaten gainerako giza taldeek kontrako ezugarrriak dituzte. Beraz, beste identitate bat dauka euskaldunak: Aitorrek eraiki zuena, hain juxtu.

TOLEDO LEZETA, Ana M.: "Aitor, euskaldunen identitatearen eratzailea". – Non: *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 25. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2010. – 325-349 or.

Gertatu zen



Julián Elorza



Carmelo de Echegaray

Eusko Ikaskuntza orain dela 90 urte

Eusko Ikaskuntza hace 90 años

Eusko Ikaskuntza a 90 ans

Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Astea Gasteizen egin zen 1921eko irailaren 19tik 25era. Landako arazoak eta baserriko osasuna jardungai izan zituen aste horrek egitarau zabala garatu zuen. Bertan, euskal lehen sektoreari zegozkion alderdi nagusiak berrikusi ziren: ustiapanak, teknikak, ekonomia,

abeltzaintza, basogintza, etab. Hainbat erakusketa antolatu zituzten Zerbitzu Agronomoetako profesionalek, Abeltzainen Batzarrek, Aldundietako teknikariek, kooperativistek eta euskal Medikuntza Elkargoetako ordezkariek.

Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak alde batera utzirik, Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Astea gertakari garrantzisuenetako bat izan zen Elkartea bere lehen urteetan antolaturikoen artean.

Premio Julián Elorza

En el mes de septiembre de hace 90 años, la Sección de Historia dio a

conocer las bases del Premio Julián Elorza que se adjudicaría "a la mejor obra de *Historia del Pueblo Vasco* que se escriba con destino a las escuelas de niños de ambos sexos". Estaba dotado con diez mil pesetas.

En su punto cuarto, las bases ponían el acento en que la obra debería describir las transformaciones de la forma de vida de los vascos en el curso de los siglos con rigor, sin fantasías ni conjjeturas. Asimismo, se debería tener en cuenta la acción de los vascos en el mundo y su contribución a la cultura universal. Además, se valoraría el estilo del texto por su didactismo y atractiva lectura para los niños.

Carmelo de Echegaray

La Députation de Gipuzkoa s'adressa à Eusko Ikaskuntza pour lui solliciter l'organisation d'un hommage à Carmelo de Echegaray à l'occasion de son 25^{ème} anniversaire comme chroniqueur du Pays. Après réception de cette suggestion, le Conseil Permanent a commencé les démarches pour obtenir des soutiens dans les autres Députations. Il a été décidé d'édition un livre auquel participeraient d'éminentes personnalités de différents pays qui gloseraient la contribution scientifique d'Echegaray.

Le livre n'a vu le jour qu'après son décès en 1925.

Kultura Ereileak

TOPIC, Tolosa Puppet – International Center (2009)

Institución impulsora: C.I.T. (Centro de Iniciativas de Tolosa / Tolosako Ekinbide Etxea)

Un Centro singular: TOPIC es el único centro integral dedicado al mundo de la marioneta en Europa. Es una apuesta por la imaginación, la originalidad y la innovación de la mano de los títeres.

Ámbitos de actuación:

- Conservación del patrimonio titiritero, tanto material como inmaterial.
- Difusión de esta forma de arte cada vez más reconocida.

• Investigación en esta área de conocimiento que, en algunos países, lleva muchos años reconocida como disciplina universitaria.

- Desarrollo de un proyecto educativo orientado a niños y mayores y reciclaje profesional de las diferentes gentes dedicadas al mundo del títere.

Un Centro para todos: TOPIC tiene como público objetivo tanto a los niños como adultos. El público infantil porque el lenguaje del títere les resulta muy próximo y es el que

mejor puede captar la magia de este mundo del imaginario que representa la marioneta y el público adulto porque puede el títere le puede ofrecer la posibilidad de mirar con ojos de niño un universo demasiado olvidado tal vez, y muy necesario.



Ubicación:
TOPIC se sitúa en la plaza Euskal Herria de

Tolosa, en un antiguo palacio de justicia y cárcel, que tuvo como uno de los reclusos más ilustres al bardo José Mª Iparragirre encerrado en 1855.

Palacio de Justicia: El edificio, recién renovado, preside con su imponente

fachada la bonita plaza porticada, y alberga en su interior, en sus cuatro plantas, un teatro de acústica inmejorable con un aforo de 250 personas, un espacio de recreo o ambigú con servicio de cafetería y exposiciones de obra plana, una planta dedicada a museo y exposiciones temporales, un centro de documentación, una residencia para artistas y/o investigadores y amplios locales para talleres.

Actividades: TOPIC es la nueva sede del Festival Internacional de Marionetas de Tolosa y del Certamen Internacional de Coros de Tolosa, que cuenta en el propio edificio también con una planta dedicada a varias salas de ensayo coral.

Web: www.topictolosa.com

Argitalpenak



Celaya, esencial

AUTOR: JOSÉ ANDRÉS ÁLVARO OCÁRIZ
VITORIA-GASTEIZ: BASSARAI, 2011
153 P.; 21 CM.
ISBN: 978-84-96636-44-6

En el centenario de Gabriel Celaya, José Andrés Alvaro Ocáriz ha escrito este libro cuyo título alude a los poemas esenciales para entender su obra y a la aportación esencial para la sociedad que le tocó vivir. Celaya fue un claro exponente de responsabilidad en el desarrollo de una conciencia crítica ante uno de los males que atacan a la sociedad como es el capitalismo desenfrenado y lo que conlleva, según afirma el autor de este libro. Su obra ha de entenderse en este contexto de acción política a favor de quienes menos tienen, que presta voz a los menos favorecidos y ejemplariza la necesidad de la cultura para evitar ser manipulados. La presente edición tiene carácter benéfico.



Perpetua Saragueta: eskuidatzia eta hiztegia

EGLEA: ANDRÉS IÑIGO ARIZTEGI
IRUÑA: NAFARROAKO GOBERNUA,
EUSKALTAINDIA, 2011
331 OR.; 1R.; 24 CM.
ISBN: 978-84-235-3250-6


Perpetua Saragueta (Mezkiritz, 1905 - Iruña, 1986) emakume aitzindaria izan zen. Gerra aurretik jadanik kronikak idazten zituen El Pensamiento Navarro eta La Voz de Navarra egunkarietan, eta Donostiarra Argia eta Baionako Eskualduna aldizkarietan. Liburu honek, alde batetik, Perpetua Saraguetaren oroitzapenak, bere bizitza ezagutu zituen emakumeen biografiak eta bertsotako bildumak ditu. Bestetik, idazle nafarrak erabilikoto lexikoa aztertzen da. Obrak, halaber, bi eranskin ditu: Gerra Zibilaren aurretik hitz lazu eta bertsotan idatzi zituen kronikez osaturiko eta Jose Mari Satrustegik 1977tik 1979ra egindako hiru elkarrizketen audio artxiboa biltzen dituen CD-a.



Oficios tradicionales XII

AUTOR: CARMELO URDANGARIN
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN: DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPOZKO, 2011
163 P.; IL.; 22 CM.
ISBN: 84-7907-660-3

Desde hace quince años, Carmelo Urdangarin viene rescatando oficios del olvido. Con su hasta hoy último libro, *Oficios tradicionales XII*, esa labor suma ya 222 oficios distintos. El tomo se divide en seis capítulos: oficios relacionados con el deporte (con datos sobre las mujeres raquetistas, y sobre la única mujer corredora de apuestas), oficios vinculados con la industria (como maestros cuchilleros y los últimos cajistas), alfarería y artesanía innovadora, madera, oficios rurales (donde se glosa a los truficultores) y un apartado misceláneo donde tienen cabida un maestro imaginero en el arte de fabricar figuras de aves, cesteros tradicionales y plateros, entre otros.



Irun en el siglo XVI

AUTORA: ANA GALDOS MONFORT
IRUN: AYUNTAMIENTO, 2011
467 P.; IL.; 24 CM.
ISBN: 978-84-606-5350-9

¿Por qué se amplía el templo de Santa María de Irun? ¿En qué momento y por qué se convierte en parroquia? ¿Qué motivó que Santa María pasara a denominarse Nuestra Señora del Juncal? ¿Qué es lo que originó que los acuerdos tomados por los gobernantes se pusieran por escrito? ¿Qué causó que la aldea experimentara un importante crecimiento? ¿Por qué surgieron nuevos oficios entre sus habitantes? El estudio y análisis de los documentos conservados en el Archivo Municipal de Irun datados del siglo XVI y catalogados en este libro, han permitido dar respuesta a preguntas como éstas. Esta obra describe los cambios que condujeron a Irun hacia la Edad Moderna.

ATEJOKA 034



IRAILA
SEPTIEMBRE
SEPTEMBER
2011

Argitaratzailea
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.
Argitalpen Idazkaria
Eva Nieto
Argazkiak
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedia Fundazioa, eta Bidegileak
Harpideretzak
Atejoka etxeak jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako
Bulego Nagusiak
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
e-i-sev@eusko-ikaskuntza.org.
Arabako Bulegoa
General Alava, 5, 1º
01005 GASTEIZ
Tel. 948-222105
Fax 948-21737
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa
Pº de Uribarri, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 944-23287
Fax 944-441650
bilbao@eusko-ikaskuntza.org.
Nafarroako Bulegoa
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUNEA
Tel. 948-222105
Fax 948-21737
iruna@eusko-ikaskuntza.org.

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00
eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00
Horario
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

Iparraldeko Bulegoa
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00
et le vendredi de 8:00-12:00.
L.G.: SS-1150-2008. ISSN: i89-0342
Fotokonposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga